PRENTSA OHARRA (2026/11/23)

Sinodoaren inkesta eskura dago jada Gipuzkoako parrokia guztietan

Abenduaren 31ra arte jasoko ditu Elizbarrutiak ekarpenak, paperean zein Internet bidez, bere bizitza espirituala eta pastorala berritzeko.

Donostia, 2026ko azaroaren 23a, astelehena. Donostiako Elizbarrutiak Gipuzkoako Elizako kide diren 16 urtetik gorako pertsona guztiak gonbidatzen ditu Elizbarrutiko Sinodoaren inkestan parte hartzera. Paperean erantzun nahi duenak Gipuzkoako edozein parrokiatan jaso dezake koadernotxoa. Digitalki, eskuragarri aurkituko dute https://sinodoa.elizagipuzkoa.org/ webgunean.

Kontsulta hau urriaren 17an ireki zen Sinodoaren lehen urratsetako bat da. Fededunek beren elkarteetan bizi dutena hartu nahi du Elizbarrutiak berrikuntzaren abiapuntutzat. Zer estimatzen duten, zer zailtasun dituzten eta zer aldatuko luketen jakiteak datozen urteetako lehentasun pastoralak elkarrekin zehazten lagunduko du.

Galdetegiak elkarteetako bizitza espirituala eta laikoek pastoralgintzan duten eginkizuna jorratzen ditu. Parrokien lurralde-antolaketari eta baliabideen kudeaketari buruzko iritzia emateko aukera ere badago.

Nola parte hartu

Inkesta anonimoa eta konfidentziala da. Betetzeko, ordu erdi inguru hartzea komeni da. Galderaren bat erantzun gabe utzi nahi izanez gero, nahikoa da «Ez daki/Ez du erantzuten» aukera markatzea.

Betetako koadernotxoa Gipuzkoako edozein parrokiatan utz daiteke, edo postaz bidali Donostiako Gotzaindegira (Heriz pasealekua 82, 20008 Donostia). Bi formatuetako erantzunak jasotzeko azken eguna **2026ko abenduaren 31** da.

Inkesta Internet bidez

https://grupopsi.eu.qualtrics.com/jfe/form/SV_5b5wLYuqLEBMak6

Código QR / QR kodea:

NOTA DE PRENSA (23/11/2026)

Todas las parroquias de Gipuzkoa ofrecen ya la encuesta del Sínodo

Hasta el 31 de diciembre, la diócesis recogerá aportaciones en papel y por internet para orientar su renovación espiritual y pastoral.

San Sebastián, lunes 23 de noviembre de 2026. La Diócesis de San Sebastián invita a todas las personas mayores de 16 años que forman parte de la Iglesia en Gipuzkoa a participar en la encuesta del Sínodo Diocesano. Quienes deseen responder en papel ya pueden recoger un cuadernillo en cualquier parroquia del territorio. Digitalmente, está disponible en: https://sinodoa.elizagipuzkoa.org/

La consulta es uno de los primeros pasos del Sínodo, inaugurado el 17 de octubre. La diócesis quiere que la renovación parta de la experiencia de quienes viven la fe en sus comunidades. Conocer qué valoran, qué dificultades encuentran y qué proponen cambiar ayudará a discernir en común las prioridades pastorales de los próximos años.

El cuestionario pregunta cómo se cuida la vida espiritual de las comunidades y qué papel tienen los laicos en la pastoral. También invita a valorar cómo se organizan las parroquias en el territorio y cómo se administran los recursos.

Cómo participar

La encuesta es anónima y confidencial. Se recomienda reservar unos 30 minutos para completarla. Quien prefiera dejar alguna pregunta sin responder puede marcar «No sabe/No contesta».

El cuadernillo cumplimentado puede entregarse en cualquier parroquia de Gipuzkoa o enviarse por correo postal al Obispado de San Sebastián (paseo de Hériz, 82, 20008 San Sebastián). El plazo para recibir las respuestas en ambos formatos finaliza el **31 de diciembre de 2026**.

Encuesta en línea

https://grupopsi.eu.qualtrics.com/jfe/form/SV_5b5wLYuqLEBMak6

Código QR / QR kodea: